

VITORIA-GASTEIZKO AGENDA 21, UDALBATZARRAREN AKORDIOA

Udalbatzarrak, Gasteizen 1998ko Uztailaren 31n bildurik ondoko akordio hau aho batez (EAJ/PNV, UA, PSE/EE, PP, IU/EB eta HBren aldeko botoez) onetsi zuen:

I: Adostasun aldarrikapena. Gasteiz garapen jasangarrirantz.

Udalbatzarrak, mundu osoari eragiten dioten ingurugiro arazoez oharturik, bere lurraldeko biztanleen ordezkari den heinean, udalerrian lan eginda, direlako ingurugiro arazoak konpontzen laguntzeko erantzukizuna bere gain hartzen du.

Hortaz, bere aginpideez baliatuz, garapen jasangarria sustatzearen alde jarduteko asmoa azaltzen du, egungo belaunaldiaren giza premiak nahiz premia materialak ase bai, baina etorkizuneko belaunaldiei beren premia horiek asetzeko ahalmena arriskuan jar ez diezaiegun.

Beraz, arian-arian, bere jarduera esparru guztietan, garapen jasangarriaren helburuetara gero eta hobeto moldatuko diren jardunbide eta ikuspegiak ezarriko dituela hitzematzen du.

II. Gasteizko Ingurugiro Jasangarritasunaren Eredua. Agenda 21.

Gasteizko Agenda 21, hiriak duen ingurugiro garapeneko lehen eredia da eta, honako argitaraldi honetan, jasangarritasun adierazleen multzo baten bidez definitu da.

Ondoko zerrenda hau prestatzeko prozesua luzea izan da. Ikuskapenak eta diagnostiko teknikoak egin dira, hiritarren eta adituen iritziak jaso. Ingurugiro jasangarritasunari dagokionez gure hirian hobetu daitezkeen alderdirik nabarmenenei eragiten saiatu dira lan horretan jardun dutenak.

1. Aireak kalitate "txarra" edota "halamoduzkoa" urtean zenbat egunetan izaten duen.
2. Ozonoari dagokionez, biztanleei jakinarazteko atalasa urtean zenbat aldiz gainditzen den.
3. Egun argiko orduetan Osasunerako Mundu Erakundeak gomendatutako mailez gorako zaratak pairatzen dituzten biztanleen kopurua.
4. Hiriko autobusak erabiltzen dituzten bidaiarien kopurua.
5. Hiriaren erdigunera sartzeko kale nagusietatik egunero igarotzen diren ibilgailuen kopurua.
6. Ur kontsumoa, biztanle eta eguneko.
7. Birziklatzen diren uren proportzioa.
8. Zadorra ibaiak hiritik jasotzen duen karga organikoaren proportzioa.
9. Gas eta elektrizitatearen etxeko kontsumoa biztanle eta eguneko.
10. Ingurugiro kudeaketaren ziurtagiria eskuratu duten hiriko enpresen kopurua.
11. Etxeetan sortzen diren hondakinen pisua, biztanle eta eguneko.
12. Hondakin birziklatuen proportzioa sortutako hondakinen aldean.
13. Bizilekuak zaharberritzeko eman diren lizentzien kopurua.
14. Oinez (1 km) oinarrizko zerbitzuetara irits daitezkeen biztanleen proportzioa.
15. Eraginkortasun energetikoko ziurtagiria lortu duten eraikinen kopurua.
16. Udalean dauden ur-hegaztietako espezie ugaltzaileen kopurua.
17. Narriaturik zeuden eta lehengoratu diren guneen azalera (m²).
18. Ingurugiroari loturiko nekazaritza jardunbideen programaren batean sartuta dauden nekazaritza lurren azalera.
19. Erretzaileen proportzioa.
20. Udalaren argibide zerbitzuei ingurugiroari buruz egindako argibide eskeen kopurua.
21. Udalak antolatutako ingurugiro hezkuntzako programek biltzen dituzten eskola adineko

biztanleen proportzioa.

III: Aldian-aldian Agenda 21aren aldizkako balioztatzea, segimendua eta zabalkundea egiteko sistema.

Hautaturiko adierazleen ikuskapen sistematikoa egitea eta adierazle horien egoera eta eboluzioaren berri zabaltzea garrantzi handikoa da ingurugiro jasangarritasuneko prozesua etengabe hobetzeko.

Helburu horrekin, Udal honek ondoko neurri hauek onetsi ditu:

- Udalbatzarra gutxienez urtean behin bilduko da, ohiz kanpoko bileran, ingurugiro jasangarritasunaren adierazleak ikuskatuz eta analizatuz hiriko ingurugiroaren egoera aztertzeko.
- Ingurugiro zinegotziak prozesua koordinatzeko ardura izango du eta alor bakoitzean aginpideak dituzten sailtako zinegotzi ordezkariak emandako datuak bilduko ditu.
- Sail horiek arduratuko dira datuak eskuratzeko egin beharreko kalkulu eta neurketa guztiak burutzeaz, eta adierazleek eboluzio positiboa izatea lortzeko behar diren jarduerak proposatuko dituzte.
- Era berean, Udalak hitzematzen du bere Agenda 21a prestatu, argitaratu eta jendartean zabalduko duela (gutxienez urtean behin). Agendak adierazleen egoera islatuko du eta beren eboluzioari loturiko baldintzak erraz ulertzeko moduan azalduko ditu.
- Bestalde, hiritarrak informa daitezen eta parte har dezaten bultzatzeko asmoz, garapen jasangarriaz zerikusia duten ingurugiro hezkuntza eta zabalkundeko jardueren plan bat idatziko da urtero.
- Ingurugiroaren Kontseilua bultzatuko du Udalak, hiritarren parte hartzea sustatzeko eztabaidagune izan dadin.